

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Onespena ematea Arabako Parke Teknologikoko ST5 sektoreko (garai bateko 11. sektorea) plan partzialaren hamargarren aldakuntzaren proiektuari, eta hasierako onespena ematea plan partzialaren xedapen-aldakuntzari

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko uztailaren 30ean egindako ohiko bilkuran:

1. Onespena ematea Arabako Parke Teknologikoko ST5 sektoreko (garai bateko 11. sektorea) plan partzialaren hamargarren aldakuntzaren proiektuari.

2. Hasierako onespena ematea Arabako Parke Teknologikoko ST5 sektoreko (garai bateko 11. sektorea) plan partzialaren hamargarren aldakuntzari, dossierrean jasota dagoen proiektuaren arabera.

3. Dosierra jendaurrean jartzea, hogeit egunerako, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarian edo egunkarietan iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzen dituen alegazioak edo oharra aurkezterik ere.

4. Aldaketak eragindako administrazio-batzarrei hasierako onespenaren berri ematea, eta aldaketaren dossier teknikoaren kopia osoa bidaltzea, hogeit eguneko epean txostena eman dezan; behin epe hori igaro ondoren erantzunik edo ebazpenik jaso ez bada, onesteko izapideak aurrera jarraituko du.

5. Proiektua helaraztea Uraren Euskal Agentziari, arauz dagozkien eskumenen barruan txostena eman dezan.

Dosierra Gasteizko Udalaren Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko uztailaren 30ean

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE